



**EUSKO JAURLARITZAKO XXXXX SAILAK PPPPP APLIKAZIO
INFORMATIKOAREN GAINEAN EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO
IRIZPENA.**

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2009ko abenduaren 2an Eusko Jaurlaritzako XXXXX Sailaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, zuzendariak goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

“Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak PPPPP aplikazio informatikoa kontsultatzeko baimena eskatu du. PPPPP aplikazioak Finantza Zuzendaritzaren eskumenpeko premiamenduzko diru-bilketa kudeatzen du. Era berean, aplikazioa sarreren kontabilizazioaz ere arduratzen da; beraz, XXXXX Bulegoa da aplikazioaren administratzailea, erabiltzaileen baimenen ondorioetarako.

Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiarekin harremanetan jarri eta gero, Epaitegiko langileek adierazi zuten derrigorrezko diru-bilketa aldian dauden espedienteak kontsultatu beharra dutela haien eskumenpeko errekursoak ahalik eta azkarren ebatzi nahi badituzte.

Kontuan hartuta, PPPPP aplikazioan dauden eta premiamendu bidean dauden espedienteen informazioek datu pertsonalak dituztela, eta gehienak trafikotik isunez buruzkoak direla, eta Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia independentea izanik ere, EAEko Administrazioan txertatuta dagoela, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena eskatu behar gaude, jakiteko nola jokatu behar dugun, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak bere eginkizunak burutzeko behar dituen datuak eskuratu ditzan.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei



erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Eusko Jaurlaritzako Sailak egindako kontsultak galdetzen du ea daturik laga ahal zaion Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiari. Datu-lagapena PPPPP aplikazio informatikoaren bitartez izango zen eta lagapenaren helburua izango litzateke Auzitegiaren eskumenpeko errekurtsoen ebazpena azkarrago egitea, Auzitegiak aplikazio hori kontsultatzeko aukera izango zuelako.

Lagapena zilegi den ala ez erabaki aurretik, badira hainbat alderdi argitu beharrekoak.

Lehenago eta behin, datu-tratamenduan parte hartzen duten alderdiak zein diren ikusi behar da: bata Saileko Zuzendaritza da, eta bestea Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia. Lehenengoa fitxategiaren arduraduna da eta bigarrena kontsulta egiten duen organoa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroa ikusi eta gero, esan behar dugu Saileko Zuzendaritzak baduela deklaratura "premiamendu bidea" izeneko fitxategi bat, fitxategiaren helburua premiamentu bidean dauden kobraketak kudeatzea dela eta fitxategiaren arduraduna kontsulta egin duen organoa dela, hau da, XXXXX Zuzendaritza, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoa aplikazioaren administratzailea dela.

Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia urtarrilaren 24ko 14/1983 Dekretuaren bidez sortutako erakunde bat da, eta 14/1983 Dekretuaren 1. artikulua xedatzen du errekurtsu eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko eskumena duela. Administrazio orokorretik edo bere erakunde autonomiadunetik eratorritako zerga izaerako administrazio egintzen aurka aurkez daitezkeen errekurtsu eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde bakarra da.

Era berean azpimarratu behar dugu 14/1983 Dekretuaren 1.2 artikulua dioela "Auzitegia XXXXX Sailari atxikita dagoela eta saileko berezko beste organo bat izango dela". Beraz, aztertzen ari garen datu-lagapena administrazio publiko beraren organoen —sail bereko organoen— arteko datu-lagapena izango litzateke.



II

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO) lagapenari buruzko definizio hau ematen du: *“Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”* (3. d artikulua).

Interesduna ez den beste bati datuak laga ahal izateko, DBLOk printzipio orokor bat finkatu zuen: adostasunaren printzipioa da. Hona hemen 11. artikulua 1. idatz-zatiak xedatzen duena:

Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du.

Bigarren idatz-zatian arau orokor horrek dituen salbuespenak daude:

“2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena.

b) Jendearen eskurako iturrietatik hartutako datuak badira.

c) Tratamendua askatasunez eta modu legitimoan onartutako harreman juridikoen ondorio izan eta harreman horiek garatzeko, betetzeko zein kontrolatzeko nahitaezkoa denean tratamendua hirugarrenen fitxategiekin konektatzea. Halako kasuetan, komunikazioa egitea zein xedek justifikatu eta xede hori betetzen duen heinean bakarrik izango da legitimoa.

d) Egin beharreko komunikazioaren jasotzailea herri-defentsaria, fiskaltza edo epaileak zein auzitegiak edo kontu-auzitegia direnean, halakoek dituzten eginkizunak gauzatzea. Modu berean, ez da behar izango adostasunik komunikazioaren jasotzailea herri-defentsariaren edo kontu-auzitegiaren antzeko eginkizunak dituzten autonomia-erkidegoetako erakundeak direnean.

e) Lagapena administrazio publikoen artean egin eta horren helburua gerogarrenean datuak tratatzea denean, xede historiko, estatistiko edo zientifikoekin.

f) Osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak lagatzea beharrezkoa denean, fitxategira jotzea eskatzen duen larrialdiari aurre egiteko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko, estatuko zein autonomia-erkidegoetako osasunari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

Administrazio prozesuetan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuak ere jasota dauka adostasunaren printzipioa. Izan ere, bere ezarpen-eremuko organoen arteko datu-transmisioak arautzen dituen 24. artikulua bigarren idatz-zatiak zera xedatzen baitu:

“Espedientea izapidetzen duen organoak datuen titularraren adostasun eskatu beharko du organo lagatzaileari eskaera egin aurretik, eta ezin izango du datuen transmisiorik egin, datuen titularrak ez badu transmisioa egiteko



baimenik eman; eta hori hala izango da datu babesaren arloko legediak badio adostasuna nahitaezko betekizuna dela”.

Datuen titularren adostasunik gabeko datu-lagapen bat denez, aztertu behar dugu ea datu-tratamendu hau bat datorren DBLOren 11.2 artikulua xedatutako salbuespenen batekin.

Gure ustez, kontsultan planteatzen den datu-lagapena guztiz bat dator c) atalean azaltzen den salbuespenarekin. Hona hemen:

“c) Tratamendua askatasunez eta modu legitimoan onartutako harreman juridikoen ondorio izan eta harreman horiek garatzeko, betetzeko zein kontrolatzeko nahitaezkoa denean tratamendua hirugarrenen fitxategiekin konektatzea. Halako kasuetan, komunikazioa egitea zein xedek justifikatu eta xede hori betetzen duen heinean bakarrik izango da legitimoa.”

Kontuan izan behar dugu Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak herritar batek aurkeztutako errekurtsio bat ebazteko atzitu behar dituela PPTPP aplikazioko datuak. Beraz, errekurtsio-egilearen eta Auzitegiaren arteko harreman juridiko batez ari gara, eta hori betetzeko ezinbestekoa da hirugarrenen fitxategi bat atzitzea. Kasu honetan "premiamentu bidean" fitxategia da atzitu beharrekoa, eta ustez, horren adierazpen automatizatua PPTPP aplikazioa da.

Hala ere, uste dugu, lagapena egiteko nahikoa lege-gaikuntza badago ere, DBLOren beste printzipio batzuk betetzea ere nahitaezkoa dela, esate baterako, kalitatearen printzipioa. Kalitatearen printzipioa DBLOren 4. artikuluan jasota dago.

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.

Beraz, printzipio hori aplikatuz gero, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia PPTPP aplikazioan sartzen bada ere, sarbide ezingo da izan mugagabea, hau da, ezin izango du aplikazioan dagoen informazio guztia atzitu, eta bakar-bakarrik atzitu ahal izango ditu dena delako errekurtsioa ebazteko beharrezkoak diren datuak. Beraz, Auzitegiaren eskura jartzen den informazioak egokia, garrantzitsua eta neurrikoa izan beharko du, lortu nahi den helburua kontuan izanda.

Horregatik guztiagatik, eta aurreko gogoeta guztiak kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak honakoa ondorioztatu du:

ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak, dena delako errekurtsioa ebazteko beharrezkoak diren datuak baino ezin izango ditu atzitu PPTPP aplikazioan, titularren adostasunik gabeko atzipena baita.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 18an